

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 94

*AGINDUA, 2022ko abenduaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez baimentzen baita «El Carmelo Ikastetxea» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuan Batxilergo Orokorra modalitatea eskaintzea.*

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuak ikastetxean Batxilergo Orokorreko modalitatea irakasteko baimena eskatuz hasitako espedienteak aztertu da.

Espedientea ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarreko arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek txostena eman dute.

3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, honako hauek aldatzen dituena: 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzako; 243/2022 Errege Dekretua, apirilaren 5koa, Batxilergoko gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituena; 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, ikastetxe pribatuei unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzkoa; 132/2010 Errege Dekretua, otsailaren 12koa, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeen gutxieneko baldintzak ezartzen dituena; eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ondoren zehazten den ikastetxe pribatuari Batxilergo Orokorreko modalitatea irakasteko baimena ematea, 2022-2023 ikasturtetik aurrera.

Kode-zenbakiak: 014566 (EAE) eta 48000162 (unibertsala).

Izen generikoa: Haur, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxe pribatua (HLBHIP).

Izen espezifikoak: «El Carmelo Ikastetxea».

Titularra: «Padres Carmelitas».

Helbidea: Kalbario, 4.

Udalerrria: Amorebieta-Etxano.

Lurralde Historikoa: Bizkaia.

Ikastetxearen osaera:

– Haur Hezkuntzako 1. zikloa: 4 unitate, edukiera honekin:

- Unitate bat urtebetez azpiko haurrentzat, 8 ikaspostuko edukierakoa.
- Unitate bat urtebetetik bi urtera bitarteko haurrentzat, 26 ikaslerentzat (13 ikaspostuko edukierakoa bakoitza).
- Bi unitate bi urtetik hiru urtera bitarteko haurrentzat, 36 ikaslerentzat (18 ikaspostuko edukierakoa bakoitza).

– Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 3 unitate, 75 ikaslerentzat (25 ikaspostuko edukierakoa bakoitza).

- Lehen Hezkuntza: 6 unitate, 150 ikaslerentzat (25 ikaspostuko edukierakoa bakoitza).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 8 unitate, 240 ikaslerentzat (30 ikaspostuko edukierakoa bakoitza).
- Batxilergoa: «Zientziak eta Teknologia», «Giza eta Gizarte Zientziak» eta «Orokorra», modalitateak. Edukiera: 4 unitate, 140 ikaslerentzat (35 ikaspostuko edukierakoa bakoitza).
- Hezkuntza Berezia: 2 gela ireki.

Bigarrena.– Batxilergo orokorreko modalitate berria baimentzeak ez dakar ikastetxeei baimendutako unitateak zabaltzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honetan jasotako baimena emateak ez du esan nahi, inola ere, hezkuntza-itunen araubidearen bidez laguntzak lortu direnik.

Laugarrena.– Ikastetxearen titulartasuna indarrean dagoen araudia betetzera behartuta dago, ikaspostu-kopuruari, ekipamenduari, titulazio akademikoari, irakasleen hizkuntza-eskakizunari eta indarrean dagoen eta aplikagarri den gainerako legeriari dagokienez, bai eta dagokion aldaketa eskatzera ere, legezko ordezkariaren bitartez, erregistroko edozein datu aldatu behar denean. Bestela, emandako baimena baliogabetu egingo litzateke.

Bosgarrena.– Zentroak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa bete behar du, bai eta indarrean dagoen legerian adierazten diren higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna ikastetxeko erakunde titularrari dagokio.

Seigarrena.– Baimendutako irakaskuntzen aldaketa ofizioz inskribatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxeen Erregistroan, dagozkion erregistro-inskripzio osagarrien bidez.

## AZKEN XEDAPENA

Agindu honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 7a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.